



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ALKARTE ABEGITSUAK

GARIZUMA 2021

ERREFERENTZI TALDEAK



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

Fratelli tutti, entziklikaren bidez, Frantzisko aita santuak dei egiten deutso mundu osoari herritarren arteko senidetasuna eta adiskidetasuna sustatzeko. Aita santuak gizadiaren kontzientziara jo eta oihu ozen eta indartsua egiten dau. Mundua galduta dago, noraezean. Historiak atzera egin dau. Makina bat amets zapuztu da. Bazterketa eta banaketa dakarren hesiak jaso dira. Itzalak handitu egin dira (FE, 9-55). Sasi-agintzari eta ziurgabetasunen erdian, Frantziskok funtsezkoa gogoratzen deusku: gizon eta emakumeen duintasuna. Fratelli tutti, gizarte senidetasun eta adiskidetasunaren gainean gizadi osoaren bizikidetzeta eta norabidea berregiteko deia da (FT, 2).

SENIDETASUNA “BESTEEKIN”

Aitatzen dauan senidetasuna ez da “gu” horrena, hurkoena, familiarena, taldearena edo nazinoarena, “geografia eta espazioaren hesietatik harago” (FT, 1) doan senidetasuna da. “Besteekiko”, pertsona ahulekiko, baztertuekiko, etorkinekiko senidetasuna da. Eurok dira senidetasun eta gizarte adiskidetasunak aurrez aurre dauan benetako erronka.

Senidetasuna, “proaktiboa” da, anai eta arreben aldeko jarrerak garatzera eta jokatzera behartzen daualako. Non da zure anaia? (Has). Bestearengana, arrotzarengana, etorkinarengana, behartsuarengana, biktimaarengana hurreratzean datza. Norbere ibilaldia, egitaraua, logika eteteaz dihardu, bidean aurkitutako bestearen beharrianari erantzuteko.



Ikuspuntu honetatik irakurri behar dogu Fratelli tutti entziklikaren gizarte senidetasun eta adiskidetasunerako proposamena.

Gizarte senidetasun eta adiskidetasunaren ebaluazinarako erizpidea, bere irismena da: noraino zabaltzen da besteak anai eta arreba lez autortzeko dogun gaitasuna?

Frantzisko aita santuak lau aditz darabilz etorkinen inguruan jarduteko: Hartu, Babestu, Sustatu eta Gizarteratu. Horixe da europar gizarteei egiten deutesen deia. Arren eskatzen dau herritarren, alkarteen eta erakunde politikoen senide erantzukizuna.

Dei egiten dau, “gure herritar bokazinoa berragertu daiten”, “gizarte lokarri barriaren” eta “guztion onaren” egile eta eragile lez. Desbardintasuna, banaketa eta kanporatzea hedatuta dagozanean, “mundu irekia pentsatzean eta sortzean” datza eta geure eleiz esperientziatik ze ekarpen egin daikegun ikustean (FT, 87 eta hur.).

BIDERA ATARATEN DIRAN ALKARTE ABEGITSUAK



Desbardinak eragindako bildurrean oinarritutako “harresien kulturari” (FT, 27) “bategitearen kulturagaz” aurre egin behar deusagula dinosku entziklikak, gizon eta emakume guztiok barriro alkarregaz amets egin daigun (FT, 8), “gizadiaren ahalmena” bere osotasunean agertu daiten beste pertsona batzuekasko hartu-emonaren bidez (FT, 150).

Adiskide eta senidez osatutako alkarte abegitsu izatea, gure alkarreak pertsona eta familia desbardinei zabaltzeko deia da, baina ez hori bakarrik. Kontua ez da bestea noiz iritsiko zain egotea, norbere ekimenez, eta eraginkor izateko senez, bestearen bila ataratea baino. Harremana, alkartasuna, bategitea gauzatzeko, alkarreak ospakizuna egiteko erak aldatu egin behar doguz, hain zuzen be, pertsona guztiok bardin izan gaitezak eta danok Jaunaren alkartasunaren barruan gagozala sentitu daigun.

Frantzisko Aita Santuak “abian dan Eleiza” izatera deitzen gaitu eta horrek gure alkarreak besteei eskaintzen deuten pastoral erantzuna barriz pentsatzera eroan behar gaitu. Erantzun horrek alkarre abegitsuak, beroagoak sortzen lagundu behar deusku, hau da, hurreratzen diran pertsonak hartzeko, entzuteko, babesteko eta barnean hartzeko gauza diran alkarreak, beharrian dagozanen aurrean bereziki sentibera diran alkarreak.



Honetan datza alkarre barneratzaile izatea: gizon eta emakumeok, edozein izanda be jatorria, kultura, gizarte-ekonomia egoera, sexu-joera, familia egoera,... alkarreak bizitzan bete-betean jardun daigula alkar aberasteko eta lankidetzak emonkorrerako jardunbidea sortuz, munduaren eta besteen ikuspuntua zabaltu daigun. Hurreratzen diran pertsonak etxean lez sentitzen badira, hartu eta entzun doguzala-eta hunkituta sentitzen badira, orduan izango gara alkarre abegitsu, adiskide eta senidez osatutako alkarre.

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

BIZITZA AZTERKETARAKO LAGUNGARRIAK



““ELEIZAK, ATEAK BETI ZABALIK
DITUAN ETXE ABEGITSU IZAN
BEHAR DAU”

(FRANTZISKO AITA SANTUA)

Frantzisko Aita Santuak adiskide eta senidez osatutako alkarte abegitsu izateko egiten deuskun deia entzunez, hona hemen Garizuma aldian egiteko bizitza azterketarako lagungarriak erreferentzia taldeentzat (gazte eta helduak), alkarteentzat eta mobimentuentzat. Senidetasunerako bidean ze urrats emon eta zelan aurrera egin laguntzea da xedea. Gure kristau alkarteak, betetan ete dira harrerarako, babeserako, sustapenerako eta integrazinorako leku?, gure kristau alkarteetan, dagokien balioa emoten ete deusegu gure senide hartu-emonei? Azken batean, alkarte abegitsu gara, alkarte abegitsu izan gura dogu edo alkarte abegitsuak eratzen doguz? Lagungarriok hiru unetan banatuta dagoz:

1 1. UNEA: ERREALIDADERA BEGIRATU - IKUSI

Bizitzako gertaeretatik abiatuko gara: gure kristau alkarteetako kide izateko prozesua egin duten pertsonak. Bizitzako gertaera horreek batera jarriko doguz.

Ondorengo aditzetan sakontzeko jardunbidea: hartu, babestu, sustatu eta integratu.

2 2. UNEA: JAINKOAREN HITZAREN ETA FRATELLI TUTTI ENTZIKLIKAREN ARGITAN - EPAITU

Jainkoaren Hitzaren eta Aita Santuaren deiak entzungo ditugu. Hausnarketa bakarka eta taldean.

3 3. UNEA: MARTXAN JARRI - EKINER

Argibide eta jardunbideak martxan jarteko eta aurrera egiteko bakarka, taldean eta kristau alkarte lez.

METODOLOGIARI BURUZKO OHARRAK

- Bizitza azterketa hau, Garizuma aldi honetan taldearen batzar batean egitea proposatzen dogu.
- Taldean saioak dinamizatzeaz arduratzen dan inor ez badago, bizitza azterketa hau egiteko komeni da taldeak dinamizatzaile edo bideratzailea izendatzea.

1. UNEA: ERREALITATEA ABIAPUNTUTZAT HARTU - IKUSI

Sarrera erara, ikusi daigun landuko dogun gaiaren inguruko bideo hau ikusiko dogu.



**BIDEOA IKUSTEKO
KLIKATU IRUDIAN**

Hasteko, BIZITZAKO GERTAERA batzuetan jarriko dogu arreta. Bizkaiko kristau alkartera heldzean hainbat lagunek emondako lekukotasuna da:



I. LEKUKOTASUNA

Orain dala 20 urte heldu ginan Hego Amerikatik. Nire emaztea eta seme-alaba biak. Bizitza osoa itzi genduan atzean. Bilbora heldzeaz batera, Caritasera hurreratu ginan eta parrokiara joatea eskatu genduan bertan. Alkartean jakinarazo geuntsen, hasieran, errefuxiatuak dauan gabezia nagusia ez dala dirua, "konpainiarena" baino, hau da, bakarrik sentitzea, babes barik sentitzea, gauzak nori esan ez eukitea, barrua hustu ezina, bildur, etsipen, desilusinoak agertzera emoteko aukerarik ez izatea, ikusiezin lez irautea... azken batean, ikusezin bihurtzen gara-eta. Inork ez deutsu kaixo edo agur esaten... Batzuetan, egunerokotasunak axolagabe bihurtzen gaitu lagun hurkoagaz.

Sasoi horretan, egun osoa hara eta hona ibilita be, ez genduan nekerik somatzen. Burua eta gorputza ez egozan lotuta; ez genduan denporarik izan dolua egiteko eta deserrotzearen ondorioak gero eta latzagoak ziran, gogorrak. Parrokia bihurtu zan gure familiaren babesleku eta malkoak etenbarik isurtzen bagenduzan be, itxaropenak arintzen eban mina; eta familia batek gizakiaren alderdirik eskuzabalena erakutsi euskun.



II. LEKUKOTASUNA

2005aren amaieran heldu nintzan Espainiara, hain zuzen be, Bilbora (Miribilla). Iritsi eta egun gitxira joan nintzan Mariaren Bihotza eleizara. Maitasun handiz hartu ninduen han. Caritas eta Eleizaren bitartez lortu dot nire lehenengo lana. Beranduago, "El Kartú" kulturarteko taldean sartu nintzan eta hainbat jardueratan parte hartu izan dogu: txangoak, ikastaroak, abesbatza, munduko arrozak,... Talde hau, apurka-apurka, desegin egin zan eta beste bat bilatu neban eta nekeza egin jakun batzeko parrokia eta lekua aurkitzea. Kulturarteko beste talde batean nago orain eta alkarte abegitsu izan gura dogu, askotariko kulturak buztartu eta kristau lez dogun konpromisoa bete-betean bizitzeko.



BARRURATU ETA GURE ESPERIENTZIAK BATERA JARRI

- Bizi izan dot noizbait alkartearen harrera?
 - Isilunea.
 - Esperientzia batera jarri.
- Nire alkartean, harrera edo bazterketaren esperientziarik ikusi dot? Zelan sentitu naz eta jokatu dot?
 - Isilunea.
 - Esperientzia batera jarri.

Aita Santuaren esanetan, lau aditz honeek jokatu behar doguz senidetasun-sen handiagoa dauan gizartea eraikitzeko. Horregaitik, galdera egingo diogu geure buruari.

ZE BALIO ETA JARRERA DA EZINBESTEKO ADITZ HONEEK EGIA BIHURTZEKO?



DINAMIKA

Hau da proposatzen dogun jardunbidea: lokaleko hormetan lau kartulina jarri eta kartulina bakotxean aditz bat idatzi. Post-itak banatuko doguz taldekideen artean eta denpora emongo deutsegu dalako aditz horreetako bakotxa egia bihurtzeko ezinbesteko diran balio eta jarrerak idatzi daiezan. Lagun bakotxak dagokion kartulinan itsatsiko ditu post-itak.

Danak itsatsi ondoren, ozen irakurriko dira. Atara diran hitz, balio eta jarrerak kontuan hartuta, alkarrizketan jardungo dabe: aditz honeek zelan, zein ikuspuntutik ulertu, aditz horreek norberak bizitzeak eta alkartean bizitzeak zer dakarren,...


(Pandemia dala-eta, talderen batek jardunbide hau burutzea egokitze jotenez badau, alkarrizketan jardun daiteke galderaren inguruan: Bakarkako etaalkarteko ze balio eta jarrera da ezinbesteko aditz honeek egia bihurtzeko?).



HARTU



BABESTU



INTEGRATU



SUSTATU

Eltzi deiogun Jainkoaren Hitzari eta eta Aita Santuak senidetasuna hedatzeko egiten deuskun deiari argi egiten.



Ondorengo idazkiok irakurri eta barruratu egin daikeguz eta, ondoren, aurkeztutako galderen haritik gure gogoeta taldean batera jarri.



Zabalagotu zeure etxolaren esparrua,
hedatu bildur barik zeure egoitza-oihalak;
luzatu lokarriak, sartu gogor ziriak,
ezker-eskuma haziko zara-eta;
zure ondorengoek nazino asko berenganatuko dabe
eta orain hondatuta dagozan urietan biziko dira.

(Isaias 54, 2-3)



Erregeak eskumakoei esango deutse:

“Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu eizue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoan erreinua. G ose nintzalako eta jaten emon zeunsten; egarri, eta edaten emon; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri”.

Orduan, zintzoek esango deutse: “Jauna, baina noiz aurkitu zinduguzan goseak eta jaten emon geuntsun, edo egarriak eta edaten emon? Noiz aurkitu zinduguzan arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zinduguzan gaixo edo kartzelan eta ikustera joan?”

Eta erregeak erantzungo deutse: “Benetan dinotsuet: Nire seniderik txikien honeetako edozeini egin zeuntsena, neuri egin zeunsten”

(Mateo 25, 34-40)



Zatoze niregana, nekatu eta zamatuz guztiok, eta neuk emongo deusuet atsedan.

(Mateo 11, 28)



Fedeak motibazino harrigarriak beteten ditu eta bestea autortzera garoaz, sinisten dauanak, Jainkoak gizon eta emakume bakotxa maitasun mugagabeaz maite dauala eta «holan duintasun mugagabea emoten» deusola autortu leikelako. Gainera, Kristok gu guztion eta bakotxaren alde isuri ebala bere odola sinisten dogu eta, ondorioz inor ez dala dandantzat dan maitasunetik kanpo geratzen. (FT 85)

- ✚ “Eleizak alkarte abegitsu izan eta ateak beti zabalik euki behar ditu. Ateak itxita dabezan eleizak, parrokiak, erakundeak, ez dira eleiza deituko, museo baino” (Frantzisko Aita Santua)
- ✚ Senide doakotasuna bizi ez dauanaren bizitza, antsietatez betetako merkataritza da; beti dago emoten eta trukean jasoten dauana neurtzen, Jainkoak, osterak, doan emoten dau, eta fededun ez diranei be lagundu egiten deituse... (FT 140)

Idazkien irakurketa osatzeko, otsailaren 4an ospatu zan Giza Senidetasunerako Nazinoarteko Egunerako prestatutako bideo hau ikusi daiteke:



**BIDEOA IKUSTEKO
KLIKATU IRUDIAN**



ISILIK, BAKARKA GOGOETA EGIN ETA, ONDOREN, BATERA JARRI:

- Zer eskatzen deust Jainkoaren hitzak?
- Bakarkako eta alkarteko ikuspuntutik, ze argi aurkitzen dozu idazki honeetan? Eta, ze iluntasun sortu jatzu?
- Zelan bizi dot anai-arrebekiko senidetasuna? Baldintzak jarten deusadaz?
- Bideoa ikusi ondoren, galderari erantzun: Ze pieza jarriko dogu ezinbesteko dogun adiskide eta senideen mundua eraikitzeko?

3

3. UNEA: MARTXAN JARRI - EGIN

Une honetan zer egin daikegun zehaztuko dogu, zelan martxan jarri edo egiten ari garan horretan zelan aurrera egin. IKUSI aldian batera jarri dana, EPAITU aldian Hitzaren eta idazkien argitan atara dana gogoratu eta bakarka eta taldean egingo dogun ekintza zehaztuko dogu, kristau alkarteari proposatuko deusaguna pentsatzeaz batera.

- **Bakarka.** Ze jarrera edo zeinu zehatz hartuko edo egingo dot abegitsu izateko? Hitz bat, balio bat, jarrera bat... aukeratu daikegu, barrutik mobidu eta aldatzera eta konprometitzera bultzatzen gaituan zerbait.
- **Talderako.** Zer zaindu behar dogu “alkarte abegitsuago” izateko? Keinu zehatzak, emon daikeguzan urratsak, gure taldea harrerarako eremu bihurtzeko.
- **Gure alkarterako.** Zer proposatu deikeogu alkarte osoari, PBko (edo parrokiako) Batzorde edo ekipo ministerialari, edo mobimentuari, pertsona guztiak hartzeari eta gure alkartean txertatzeari begira? Ekintza, konpromiso zehatzak, urrats txikiak pentsatu, bide horretatik aurrera egiteko.

SENIDETASUN-SENEKO ALKARTEAREN ALDEKO OTOITZA

Jauna, lagundu eiguzu

ETXEA DAN ALKARTE izaten: anai-arrebok adiskide eta senide lez batzeko leku non bakotxak bere egia esan daian sakontasunez eta konfiantzaz.

SANTUTEGI DAN ALKARTE: gure artean dagoan biziaren

Jainko Jaunagaz bat egiteko leku.

ALKARTE ZERBITZARI: lagun hurkoaren esanetara.

ALKARTE MISIOLARI: beti Zu, Jesus Jauna,

iragarteko prest. Jesus Jauna,

Espiritu Santuaren presentziaz betetako alkarte egin gaizuz, behartsuen aldeko konpromisoa eta zerbitzua lehenesten dituan alkarte,

danak aurreretxi barik hartzen dituan alkarte abegitsu, bategite eta entzutea gauzatzeko eremuak sortzen dituan alkarte, alkarte otoizlari.

Eta alkarteko kide guztiak bertan bizi dan Jainkoagaz bat eginik bizi eta sustatu daitezala.

Egin gaizuz alkarte gogotsu, biziari abesten deustan alkarte,

edertasunaren aurrean txunditzen dan alkarte,

misterioaren aurrean adi dagoan alkarte

eta maitasunezko egintzen bidez

Erreinua iragarteko prest dagoan alkarte. Señor